

AMETSEI SEGIKA

Bazen behin Kataluiñako herri txiki batean Max izeneko neska bat. Maxek 12 urte zituen, eta futbola maite zuen eta lagunekin egotea era bai. Horrez gain, ez zen ezer txukuna eta bihurria ere bazen, baina ez zuen beragan sinisten. Max neska argala eta altua zen, ile luzea zuen metxa urdin batekin, begi berdeak zituen eta beti txandal batekin edo praka zabalekin joaten zen.

Maxek beti zuen irribarre bat ahoan nahiz ta bere futbol taldeak galdu. Berak txikitatik amets bat zuen bere herriko lehen futbol taldean jokatzeko eta beti galdetzen zion bere buruari: Lortuko dudala uste duzu?

Egun batean bere lagun guztiekin joan zen entrenatzera, dena ondo zihoan eta bat-batean... PUM! neska batek kriston ostikada eman zion belaunean.

- AAAAAAAAAAAAAA!!!!- egin zuen oihu Maxek lurrian zegoela. Entrenatzailea korrika joan zen Max ondo zegoen ikustera.
 - MAAAAAAAAAAAAAX!- egin zuen oihu entrenatzaileak eta zera galdetu zion:
 - Ondo ahal zaude? ibili zaitezke?
- Eta Maxek hurrengo erantzun zion:
- Ezin naiz altxatu.-esan zuen begiak itxita.
 - Etorri lagunduko dizut.- esan zuen entrenatzaileak kezka aurpegiarekin.

Max txarrena pentsatzen zegoen:

- Ezingo dut berriro ibili.- esan zuen negarrez.

Ospitalera heldu zirenean esan zioten ligamento gurutzatuak zirela eta 5 hilabete egon beharko zela futboleko jokatu gabe.

Hurrengo egunean, bere ekipoko neskek korrika joan ziren Max ondo zegoen ikustera eta une hartan Maxek esan zien 5 hilabete egon behar zela futboleko jokatu gabe. Denak besarkada bat eman zioten elkarri eta klasera sartu ziren. Klasean mate eta ingelesa eduki zuten eta gero bere lagun guztiak entrenatzera joan ziren. Max, berriz etxera joan zen etxeko lanak egitera eta hurrengo egunean zuten ingurune azterketa prestatzera.

Bi hilabete pasatu ziren, hiru ere bai, baina Max noiz bueltatuko zen pentsatzen zegoen eta ea bere ametsa lortuko zuen galdetzen. Laugarren hilabetea pasatu zen eta Max berriz gauza berbera pentsatzen zegoen uneoro. Azkenean 5. hilabete igeltsua kendu eta ariketa berezi batekin hasi zen entrenamendua.

Entrenamendua bukatzerakoan entrenatzaileak behatzaile bat etorriko zela esan zuten futboleko lehen ekipoa jokatzeko. Maxek zorion hotzikada sentitu zuen gorputz osoan zehar.

Behatzailea etortzeko eguna iritzi zenean tensio asko zegoen eta entrenatzaileak esan zuen entrenamendu normal baten moduan sentitzeko eta

denak baloi bat hartu eta porteriara tiroak egiten hasi ziren.

Entrenamendu bukaeran behatzailea lehen ekipoa zeinek jokatuko zuen esan zuen eta bat- batean...

- Max!.- esan zuen behatzailek, Maxek ezin zuen sinetsi eta lehen ekipoa jokatzeke kamiseta eman zion 5 zenbakiarekin. Handik aurrera bere ametsak jarraitzeke aukera zuen.

Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta irten dadila bere herriko plazan.

Harrezia567